# P 17 ARGIAREN LEHEN ZIRRINTA

IRATZEDER

XALBAT BERTERRETCHE






## ARGIAREN LEHEN ZIRRINTA

*Argiaren lehen zirrinta*
*Zure ganik sortu baita*
*Denak Jauna gaiten bil eta*
*Zure aintza dugun kanta. ( bis )*

*I) Zuk emanik dugu bizia.*
*Zuk emanik iduzkia.*
*Kantuz jeiki mundu guzia*
*Jauna baitan bozkaria.*

*II) Lur-petik da Kristo jalia*
*Altxaturik hil-harria*
*Hura lagun gaiten abia*
*Moldatzera lur berria*

*III) Gure beha dagon Aitari*
*Denak etor gaur kantari*
*Goazen gero Kristo iduri*
*Emanez gar munduari.*

## ARGIAREN LEHEN ZIRRINTA

*Argiaren lehen zirrinta*
*Zure ganik sorthü beita*
*Denak Jauna gitin bil eta*
*Zure aintza dügün khanta ( bis )*

*I) Zük emanik dügü bizia.*
*Zük emanik bai ekhia.*
*Khantüz jeiki mündü güzia*
*Jauna beithan boztaria.*

*II) Lür-petik da kristo elkhia*
*Altxatürik hil-harria*
*Hura lagün gitin abia*
*Moldatzera lür berria*

*III) Gure beha dagon Aitari*
*Denak jar egün khantari*
*Guatzan gero Kristo üdüri*
*Emanez gar mündiari.*